

ARAZO EGOERA

# LANDAREEKIKO ITSUTASUNA

**ARLOA:** 3. multzoa: Izaki bizidunak**MAILA:** LHko 1. zikloa

## 2030 AGENDA KO HELBURUAK

Jarduera honekin 2030 Agendaren Garapen Iraunkorrerako Helburu hauek lantzen dira:



## TESTUINGURUA

Gure egunerokoan, hainbat landare eta zuhaitz mota ezberdinek inguratzen gaituzte. Hori horrela izanagatik, belaunaldiz belaunaldi, landareekiko interesa eta ezagutza gutxituz joan da gure gizartean. Badirudi, zenbait kasutan, inguruan ditugun landareak jada ikusi ere ez ditugula egiten. Mundu mailan “*plant blindness*” edo “landareekiko itsutasuna” deitu zaio gertatzen ari den honi.

## — ARAZOA

Landare eta zuhaitz espezie hauek ezagutzen dituzu?



Zuk ere landareekiko itsutasuna daukazu?

Egin irteera bat ikastetxe inguruko gune natural batera eta behatu bertan aurkitu daitezkeen landare edota zuhaitz espezie desberdinak (argazkia atera, koadernoan marraztu, hostoak bildu...). Aztertutako espezie ezberdinen ezaugarriekin jokatu, ikasgelan mural bat egin.

---

## **XEDEA**

Inguruan ditugun landare eta zuhaitz espezieen aniztasunaz ohartzea eta hauen inguruko behaketa lanetan oinarrituz hauen ezaugarri ezberdinez jabetzea.

---

## **HELBURUAK**

- Landare eta zuhaitz espezie ezberdinen ezaugarrien behaketa lanak egitea.
- Espezieen eta hauen ezaugarrien aniztasunaz jabetzea.
- Inguruko ekosistemak ezagutzeko oinarriak finkatzea.
- Izaki bizidunekiko lotura afektiboak sortzea.
- Izaki bizidunak errespetatu eta zaintzeko beharraz jabetzea.
- Aire librean behaketa eta landa-lanak eginez, ikasle arteko ikasketa kooperatiboa garatzea.

---

## **ATAZA**

Ikastetxe inguruko gune natural batera irten eta bertako landare eta zuhaitz espezie desberdinen ezaugarriak behatuz hauen inguruko informazioa bildu (tamaina, hostoen eta loreen forma, kolorea...) eta ikasgelan jarritako mural bat osatu. Garai ezberdinetan egindako irteeretako behaketen bidez murala osatu eta aberasten joan ikasturtean zehar.

---

## **JARRAIBIDEAK**

- Landare edo zuhaitz espezie ezberdinak **behatu** landa-lan librea eginez (nahi izanez gero ikasleak taldeka antolatu daitezke).
- Behatutako landare edota zuhaitzen **ezaugarriak identifikatu** eta bildu (argazkiak, hostoak, marrazkiak...) denen artean aztertzeko.

## Naturan hezten

- Borobilean eserita aurkituriko espezieen ezaugarri ezberdinak kontatu edo erakutsi eta denen artean **komentatu**.
- Ikasgelan kokatuko den muralean behatutako espezie horien **ezaugarriak nola adierazi erabaki**: espezie ezberdinak marraztu, bildutako hostoak erantsi, ateratako argazkiekin *collage* bat egin...
- Bildutako informazio guztia ikasgelan kokatutako **mural batean jarri**.
- **Garai ezberdinetan** landare jakin batzuen **garapena behatu** eta egoera bakoitzari dagozkion ezaugarriak aztertu (hosto berriak, loraldia, fruituak, haziak...). Honenbestez urtaro ezberdinetan irtengo gara ingurune berean.
- **Ikasturtean zehar**, garai ezberdinetan behatutako espezie edo garapen fase ezberdinetako ezaugarriekin (loraldia, esaterako) **murala osatzen joan**.

Jarduera garatzeko Interesekoak izan daitezken euskarazko informazio iturriak:

- [Gure basoak](#) weba eta liburua (Aranzadi Zientzia Elkartea)
- "Euskal Herriko zuhaitz eta zuhaixken gida" liburua (Aizpuru, Iñaki; Catalán, Pilar; Garin, Francisco).
- "[Zuhaitz eta zuhaixkak baserri eremuan: landare-hesien onurak eta erabilpenak](#)" liburua (Goimen).